

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Alkate-udalburuak 2019ko apirilaren 10ean, 834 zenbakigarren Dekretua, Asociación Ganaderos de Laudio – Aberedunak elkarteari 2019ko Dolumin Barikua Ganadu Feria egitaraua burutzeko izendun diru-laguntza emateko hartu zuen erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 453451

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 27an hartu zuen erabakiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Onuraduna

Asociacion Ganaderos de Laudio – Aberedunak.

Bigarrena. Xedea

2019ko udal aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izenduna ematea, gure herrian 2019ko apirilaren 12 egunean Dolumin Barikua Ganadu Feria egitarau antolatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Alkate-udalburuak 2019ko apirilaren 10 egunean hartutako erabakiaren bidez onartu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

Diru-laguntza honen kopurua 15.185,00 euro izan da.

Bosgarrena. Diru-laguntza justifikatzeko epea

Programa burutzen den egunetik bi hilabeteko epearen barruan.

Laudio, 2019ko maiatzaren 3a

Alkate-udalburua

JON IÑAKI URKIXO ORUETA